



KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN LEGE- AURREPROIEKTUAREN AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoa betez, aurretiazko kontsulta honen helburua da etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzea honako hauei buruz:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak
- Onartzeko beharra eta egokitasuna
- Arauaren helburua
- Izan daitezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak

Konpondu nahi diren arazoak

1994an, maiatzaren 27ko 8/1994 Legea, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal kolektibitate eta zentroekiko harremanei buruzkoa, onartu zen. Onartu zenean euskal etxeen errealitatearen egoera sozial, kultural eta ekonomikoari erantzun dio lege honek.

Gaur egun, lege hau indarrean egon zenetik 27 urte igaro ostean, atzerrian dauden euskal gizon-emakumeen elkartze eta harreman ereduak aldatu dira; nazioarteko mugikortasunak eta teknologia berriek esponentzialki eboluzionatu dute; bestelakoak dira egungo euskal emigrazioaren motibazio eta helmugak; euskal etxeen eta kanpoan dauden euskal herritarren beharrezanek erantzun berriak eskatzen dituzte. Eta horrek guztiak, nazioarteko esparruan izandako aldaketei eta globalizazioak sortutako harremanen erronkei lotuta, arau-esparru berri bat eskatzen du.

Garatzen ari diren eta epe ertain eta luzean antzeman daitezkeen aldaketa hauen jakitun, kanpoan dagoen euskal komunitatearen errealitatearekin bat etorriko den araudi berri bat jorratzea da oraingo asmoa. Errealitate bat, mundu globalizatu batean, euskal diaspora handi bat osatu duena, 94ko Legean jorratzen direnen ezaugarri, behar eta



	<p>itxaropen oso desberdinak dituena, eta araudi berri honek erantzuten saiatzen dena.</p>
<p>Onartzeko beharra eta egokitasuna</p>	<p>Testuinguru historiko, sozial, kultural eta juridiko berri bat beharrezkoa da, jardun-esparrua dimentsionatzea ahalbidetuko duena, baita atzerrian dauden euskal gizon-emakumeen errealitate berriei babes juridikoa ematea ere. Euskadin ibilbide sendoa dugu euskal etxeekin harremanetan, 1994an momentuko beharrei erantzun genien etorkizunari begira. Eta orain egungo araudiaren mugak gainditzea eta egungo egoera sozial, kultural eta ekonomikoari etorkizuneko aurreikuspenekin erantzuten dioten potentzialtasunak aktibatzea da.</p>
<p>Arauaren helburuak</p>	<p>Urteek aurrera egin ahala eta gizartearekin batera aldatuz joan den euskal komunitatearen errealitate berriari estaldura ematea da arauaren helburua.</p> <p>Honako hauek dira arautu nahi diren oinarritzko helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Kanpoko euskal komunitatea, errealitate ezberdinen kontzeptu integratzaile gisa. 2.- Atzerrian dauden euskal komunitateen inskripzioa. 3.- Kanpoan dauden euskaldunen eskubideak eta onurak. 4.- Kanpoko euskal komunitatearekin harremanetarako organoak. 5.- Euskal herritarren itzulera. 6.- Emakumeen eta gazteen papera euskal komunitatean. 7.- Euskal Diasporaren eguna. Legez ezartzea. 8.- Euskal diasporaren kultur ondarea.
<p>Izan daitezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak</p>	<p>Lege berri bat onartzeari buruzkoa da, aurrekoa indargabetzen duena, eta lege erreserba behar duten neurriak aurreikusten dituena, horretarako egokia den arau berri bat egitea, beste irtenbide alternatiborik aurreikusi gabe.</p>